

D DOKUMENTUA

DOKUMENTU EKONOMIKOA

AURKIBIDEA

1. Kapituluua AURREKONTU ETA BIDERAGARRITASUN AZTERKETA.....	1
1.1. SARRERA.....	1
1.2. EGITEKO JARDUKETAK ETA AURREKONTUA	3
1.3. FINANTZAKETA.....	6
2.Kapitulua JASANGARRITASUN EKONOMIKOA.....	15
2.1. MANTENTZE BEHARREKO JARDUERAK	15
2.2. EGINTZEN ZERBITZURAKO ERREKURTSOAK.....	18

TAULEN ZERRENDA

1.Taula	Plan Berezian aurreikusitako jarduerak. Lehenespena eta aurreikusiriko aurrekontua.
2.Taula	Inplikaturiko administrazioak
3.Taula	Mantentze lanak behar dituzten Plan Berezian aurreikusiriko jarduketak.
4.Taula	Inplikaturiko administrazioen errekurtsuak

1. KapituluA AURREKONTU ETA BIDERAGARRITASUN AZTERKETA

1.1. SARRERA

Izapidetzen ari den planak hainbat ezaugarri ditu, beste plangintza batzuen aldean, berezitasun espezifikoa izatea eragiten dutenak, eta ondorioz, haren eduki ekonomiko-finantzieroek berezitasun horiei egokitu behar zaizkie ere.

Ekimen publikoko plana da eta hortaz, bere finantziarioa publikoa izango da. Proiektuan aurreikusitako jarduerak errentagarritasun ekonomikoan soilik neurtu ezin izango direla argi izatea garrantzitsua da, izan ere, beste motatako plan berezietan ez bezala, proiektu honen emaitzek errentagarritasun soziala izango dute. Izan ere, horrelako babesteko eta mantentzeko plan baten ondorio ekonomikoak ez baitira zuzenak eta berehalakoak, zeharkako izaera eta kuantifikazio ekonomiko zailekoak baizik.

Zentzu horretan, Nazio Batuen Ingurumen Programak (NBIPek) bultzaturiko ikerketa bide berriek ekosistemak ondorengo eran identifikatzen dituzte: *“(...) ondasun natural bat kontserbatzea beharrezkoa da klimaren erregulazioa, karbonoaren finkapena, lurzoruen emankortasuna, polinizazioa, kutsatzaileen finkapena, ur garbiaren hornidura, uholdeen kontrola, balio estetiko eta espirituak eta birsortzea bezalako zerbitzuak izateko*¹. *Ekosistemen zerbitzu hauek gizakien gizartearen joritasunean ondorioak dituzte eta ez bakarrik ekonomian, baizik eta baita osasun, giza harremanetan, askatasun edota segurtasunean ere*²”.

Ekosistemak multifuntzionalak dira eta gizarteari maila anitzeko zerbitzuak eskaintzen dizkiote. Ekosistemen zerbitzuak pertsonok ekosistemengandik jasotzen ditugun zerbitzuak dira, zeintzuek zuzenean edo zeharka geure bizi-kalitatea mantentzen duten. Milurteko Ekosistemen Ebaluazioaren ikerketan lau ekosistema mota sailkatzen dira: 1) hornidura zerbitzuak (elikagaiak, ura, energia); 2) erregulazio zerbitzuak (ura araztea, uholde arriskua, klima erregulazioa); 3) kultur zerbitzuak (hezkuntza, aisia); 4) mantentze zerbitzuak, beste zerbitzu guztiak mantentzen dituztenak (elikagaien zikloa, zoru eratzea).

Ekosistemen zerbitzuen kontzeptuak nabarmendu egiten du ekosistemengandik onura ateratzen dugula eta euren mende gaudela, gizarteari eskaintzen dioten zerbitzu anitzengatik. Kontzeptu horrek agerian uzten du natur ingurumena mantentzearen beharra, ez bakarrik bere berezko baliogatik, baizik eta gure osasunaren, ongizatearen eta joritasunaren mantentzerako funtsezkoa delako.

Ekosistemen kontserbazioak eta horien inguruko biztanleen gozamenak ez du itzulpen ekonomiko zuzenik epe laburrean. Zifra hori kalkulatuak zenbait zailtasun dakartza, besteak beste, ekosistemen zerbitzuak adierazleekin ebaluatzea, zerbitzu ezberdinen arteko erlazioak ezagutzea, zerbitzuen produkzio eta erabilera eskalak doitzeta, eta ekologia eta konpetentzia administratibo edo politikoen arteko eskalak doitzeta.

¹ Daily, 1997.

² Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa (MA, 2005)

Hala ere, begi-bistakoa da halako gune baten definizioak natura-turismoa, ikerketa etab. moduko momentuko etekin ekonomikoak ematen dituzten sektoreen dinamizatzeari bultzazazakeela.

Ekimen publikoak ez du sektore pribatuko finantziakzioa galarazten, nahiz eta ekimena publikoa izango den eta sektore pribatuaren sarrerak jarduerak konkretu eta kolaborazioen bitartez aurrera eramango diren. Jarduera eta kolaborazio horiek zehazten zailak izango dira, dokumentu honetan planteatzen direnaren moduko helburu zehatzak dituen antolatzeke tresna bat dagoen arte.

Denborak finantziakzioarekin zuzenean erlazionaturik daude. Hala, plana betebeharreko jarduerak argi dituen instrumentua gisa itxuratzen da, baina horiek gauzatzeko epe zehatzik gabe. Proposamen askok helburu beregain bat dute, kontserbazioari, hobekuntzari, potentzialtasunen balioesteari eta abarri egiten baitiote erreferentzia eta horiek betikotuak izan behar dira, plan beraren helburu gisa itxuratzen baitira. Horrek plana termino finantzariotan, instrumentu ireki baten moduan ikustera garamatza, hau da, lurraldean jarduerak aurrera joan ahala baliabidez hornitzen joan beharko den instrumentu gisa.

1.2. EGITEKO JARDUKETAK ETA AURREKONTUA

KODIGOA	JARDUKETAREN IZENBURUA	LEHENTASUNA	AURREKONTUA
01.01.01	Santixo hondartzako sarbide berria egiteko eta ekipamendak bertan kokatzeko proiektua	HANDIA	250.000,00 €
01.01.02	Santixo hondartzako saneamendu proiektua	HANDIA	200.666,00 €
01.01.03	Hondartzako sarbide berritik oinezkoentzako pasabide berria egokitu	TXIKIA	7.560,00 €
01.01.04	Hiri-hondartza eta duna aitzindariaren arteko mugetan itxitura malgua ezarri eta aldian behin ikuskatu	ERTAINA	306,00 €
01.01.05	Sentsibilizatzeko eta jendarteratzeko jarduketak (Santixo hondartzan)	TXIKIA	2.920,00 €
01.02.01	Dunan zeharreko oinezko ibilbideak berrantolatu eta arautu	ALTA	6.984,88 €
01.02.02	Batasunaren intereseko habitatak babestu	ERTAINA	1.230,00 €
01.02.03	Landaretza exotikoa murriztu edo ezabatu Santixoko dunan	ERTAINA	21.745,12 €
01.02.04	Ekipamendua eta jolas-tokia lekuz aldatu	HANDIA	5.215,04 €
01.02.05	Kai-muturreko harri-lubetaren inguruko areak berreskuratu	TXIKIA	2.073,75 €
01.02.06	Sentsibilizatzeko eta jendarteratzeko jarduketak (Santixoko dunetan)	TXIKIA	2.920,00 €
01.02.07	Zuloagako barrutian dauden espezie exotikoen eta inbaditzaileen azterketa	ERTAINA	1.850,00 €
01.03.01	Santixo hondartzako egungo sarbidea itxi eta bidezidorra berdiseinatu	HANDIA	26.000,00 €
01.03.02	Landaretza exotikoa murriztu edo ezabatu Santixoko paduran	ERTAINA	13.404,41 €
01.03.03	Spartina alterniflora ezabatzeari eta Spartina maritima berreskuratzeari buruzko ikerketa eta azterketa	ERTAINA	2.500,00 €
01.03.04	Padura berreskuratzeko lanak	ERTAINA	14.000,00 €
01.03.05	Sentsibilizatzeko eta jendarteratzeko jarduketak (Santixoko paduran)	TXIKIA	5.920,00 €
01.03.06	1-03 azpieremuaren (Santixo padura) titulartasun-aldaketa	TXIKIA	-
02.01.01	Amarralekuak arautu, antolatu eta txukundu (Bokalea)	TXIKIA	4.720,00 €
02.01.02	Santixo hondartzara iristeko pantalana lekuz aldatu	ERTAINA	2.652,00 €
02.01.03	Bainatzeko ingurua balizez mugarritu	TXIKIA	480,00 €
02.01.04	Erribera kaleko kaiko pantalana lekuz aldatu	ERTAINA	300,00 €
03.01.01	Amarralekuak arautu, antolatu eta txukundu (Artadi)	TXIKIA	3.238,00 €
03.01.02	Ezkerraldeko ibaiertzeko pareta zaharberritu	TXIKIA	2.055,05 €
03.01.03	Ibaiertzeko pasealekuaren heskaia indarberritzeko zuhaixkak landatu	TXIKIA	5.461,00 €

KODIGOA	JARDUKETAREN IZENBURUA	LEHENTASUNA	AURREKONTUA
03.01.04	Santixo auzoko saneamendua ezkeraldeko kolektorearekin lotzeko proiektua egin	ERTAINA	26.000,00 €
03.01.05	Trantsiziozko ur-masaren Egoera Ekologikoa jarraipena egin, urtean behin	ERTAINA	2.400,00 €
03.02.01	Zaborra bildu eta garbiketa lanak egin Zubiberriko ondoko partzelan	TXIKIA	180,00 €
03.02.02	Amarralekuak eta utzitako txalupak kendu	TXIKIA	126,00 €
03.02.03	Zubiberri ondoko partzela berreskuratu, ingurumen eta paisaia aldetik.	TXIKIA	7.193,25 €
03.03.01	Floresko ontziralekuaren eraikina eraitsi	TXIKIA	4.682,50 €
03.03.02	Atsedeen-lekua prestatu Floresko ontziralekuan	TXIKIA	38.500,00 €
03.04.01	Artadiko bidexkak egokitu	ERTAINA	5.517,42 €
03.04.02	Artadin begiratokiak eraiki	ERTAINA	6.056,40 €
03.04.03	Intereseko espezieen jarraipena egin urtean behin	TXIKIA	6.000,00 €
03.04.04	Artadirako Herri-Onurako Mendi eta Mendi Babesgarri izendapena eskatu	TXIKIA	-
03.06.01	Artadiko San Migeleko begiratokia eraiki	ERTAINA	4.397,00 €
03.06.02	Kantauriar artadia berrezarri Artadiko San Migelen	ERTAINA	8.144,40 €
04.01.01	Basadizarreko lubetan zuhaixkez osatutako hesi bat landatu	HANDIA	958,00 €
04.01.02	Hegaztien behatokia eraiki eta informazio taula jarri Basadizarren	ERTAINA	9.988,23 €
04.01.03	Basadizar ibarrean padura berreskuratu	TXIKIA	274.141,72 €
04.01.04	Landare-hesia landatu Basustan	TXIKIA	5.554,60 €
04.04.01	Gorostiagako betelanaren eremuan padura berreskuratzeko proiektua	HANDIA	27.000,00 €
04.04.02	Gorostiagako betelanak ukitzen dituen lursailak desjabetu eta publikoak bihurtu	HANDIA	104.666,10 €
04.05.01	Sanmigelbasoko bidexka egokitu	ERTAINA	1.064,04 €
04.05.02	Baso misto atlantikoa berrezarri Sanmigelazpian	ERTAINA	3.828,00 €
04.05.03	Sanmigelbasoaren Mendi Babesgarri izendapena eskatu	TXIKIA	-
04.06.01	Baso misto atlantikoa berrezarri Plantioaldean	ERTAINA	3.614,00 €
04.06.02	Basadizar-Basustagaina bidexka egokitu	ERTAINA	550,56 €
04.06.03	Plantioaldearen Mendi Babesgarri izendapena eskatu	TXIKIA	-
04.07.01	Informazio gunea ezarri Basustagainan, ibilbide sareari buruzkoa	TXIKIA	1.460,00 €
04.08.01	Kanteragainan begiratokia egokitu	ERTAINA	3.565,20 €
04.08.02	Basoberriaren Mendi Babesgarri izendapena eskatu	TXIKIA	-

KODIGOA	JARDUKETAREN IZENBURUA	LEHENTASUNA	AURREKONTUA
04.09.01	Beduako irla berreskuratu	TXIKIA	52.698,90 €
04.11.01	Beduako ontziola zaharberritzeko proiektua	TXIKIA	23.200,00 €
04.11.02	Bedua auzoaren osotasunezko berreskuratze eta zaharberritzeko Plan Berezia	TXIKIA	28.000,00 €
05.02.01	Landaretza exotiko inbaditzailea murriztu edo ezabatu Oikiako ibaiertzetan	ERTAINA	75.513,65 €
05.02.02	Ibaiertzetako landaredia berrezarri Oikiako erriberan	ERTAINA	61.252,70 €
05.04.01	Baso mistoa berrezarri Dornutegin	TXIKIA	1.449,40 €
06.02.01	Landaretza exotiko inbaditzailea murriztu edo ezabatu Soburutzaldeako ibaiertzetan	ERTAINA	*
06.02.02	Ibaiertzetako landaredia berrezarri Soburutzaldeako erriberan	ERTAINA	98.038,90 €
06.02.03	Informazio-guneak Soburutzaldean	TXIKIA	4.380,00 €
06.02.04	Urlehortarrentzako urmaelak egokitu	TXIKIA	7.001,20 €
06.03.01	Urola-F ur-masaren Egoera Ekologikoa jarraipena egin, urtean behin	ERTAINA	2.400,00 €
06.04.01	Mantzisidorreko lursailak desjabetu	TXIKIA	74.488,05 €
06.04.02	Mantzisidorreko lursailetan haltzadi kantauriarra berrezarri	TXIKIA	78.353,00 €
06.05.01	Ingurumen Ikuskatze-Programaren Kontrola (A-8 autopista)	TXIKIA	
		GUZTIRA	1.636.564,47 €

1.Taula Plan Berezian aurreikusitako jarduerak. Lehenespena eta aurreikusiriko aurrekontua.

1.3. FINANTZAKETA

1.3.1. INPLIKATURIKO ADMINISTRAZIOAK

Begi-bistakoa da plana administrazio anitzen ondoz ondoko eskumenak gainjartzen diren eremu batean kokatzen dela, horregatik hori bereziki kontuan hartu behar da zenbait jarduera konkretu eta ondorioz, finantziazioa aurrera eramateko garaian. Momentu honetan beste administrazio konkretu batzuen partidak banan-banakotzea oso zaila da, administrazio bakoitzak bere lehentasunak baitaizka, nahiz eta horietako asko plan honen eratze prozesuan jadanik aipatuak izan diren.

Euren konpetentzia sektorialengatik inplikaturik eta Plan Berezian aurreikusiriko zenbait jardueren finantziazioaren arduradunak izan daitezkeen administrazio eta/edo erakunde publikoen artean ondorengoak hautatu dira:

Administrazioa	Arduraduna	Jarduera eremua
Gobernu zentrala.	Gipuzkoako Itsasertzetako Zerbitzu Probintziala	Itsasoko eta lehorreko jabetza publikokoak
		Itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren (ILJBren) babes-zorgunea
		Bide-zortasuna
Eusko Jaurlaritza.	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza – EAEko Natura 2000 Sarearen behatokia	‘Urola itsasadarra’ KBE
	Kultura Ondarearen Zuzendaritza	Euskal kultura ondarea babestu, aberastu, zaindu eta sustatu.
	URA - Ur agentzia	Barneko Arroetako plangintza eta kudeaketa hidraulikoa Jabari publiko hidraulikoaren babesa
Gipuzkoako Foru Aldundia.	Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza	Saneamendurako Plan Integrala Uraren kontrol eta kalitatea Santixo hondartzaren jarraipen eta garbiketa
		Lurriteango-Arrantzurako eta Ehizarako Lurralde Batzordea
	Mendietako eta Natura Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia	Ohian baliabideen antolatzea
		Gune babestuen kontserbazioa
		Landare eta animalien babesa
		Ur kontinental publikoen eta haien ibilgu naturalen, ibai-ertzen eta zortasunen polizia
	Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia	Nekazaritza Antolaketa eta Sustapena
	Kultura Zuzendaritza Nagusia	Ondare Artistikoaren Zerbitzua
Gipuzkoako ur kontsurtzioa		Hornikuntzarako eta saneamendurako sarea
Zumaia Udala		Udal Plangintza
Getariako Udala		Udal Plangintza
Zestoako Udala		Udal Plangintza

2.Taula Inplikaturiko administrazioak

Ondorengo lerroetan aipaturiko administrazioek ezarritako jarduera lerroak azalduko dira, zeintzuk Plan Berezian aurreikusiriko zenbait jarduketarekin zuzenean erlazionaturik dauden.

Gipuzkoako Itsasertzetako Zerbitzu Probintzialari dagokio Itsaso eta Kosta Iraunkortasun Zuzendaritza Nagusiaren parte gisa, kostako ingurumen politikaren garapen eta egikaritzea, hurrengo lan ildoak nabarmenduz:

- Kostaren kudeaketa iraunkorrerako jarduketa eta inbertsioak, zeintzuk osatuak dauden, alde batetik, kudeaketa iraunkorrera zuzenduriko obra eta azpiegiturez, eta bestetik, itsasbazterra berrezartzeko eta birsortzeko ingurumen-izaera duten obrez.
- Beste administrazioekin (udalak, Foru administrazioa eta administrazio autonomikoa) lurraldearen kudeaketan parte hartze koordinatua.

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzari dagozkio, beste funtzioen artean³, ondorengoak:

- 'Natura 2000' Europar sare ekologikoaren lekuak eta gune natural babestuen adierazpena proposatzea, eta sarearen kudeaketa Foru Aldundien aurreiritzirik gabe aurrera eramatea.
- Gune Natural Babestuen helburuak betetzeko beharrezko ekintzak aurrera eramatea.
- Beharrezko planak eratzea eta ingurumenaren inguruko hezkuntzarako, formaziorako eta sentsibilizaziorako ekintzak aurrera eramatea.
- Ingurugiro gaien inguruan sentsibilizazio eta kontzientziazte ekintzak koordinatzea eta gauzatzea.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzario dagozkio, beste funtzioen artean, ondorengoak:

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari esleitutako funtzioak betetzea Euskal Kultura Ondarea gorde, aberastu, babestu, hedatu eta sustatzeko aurrekontuetan dagoen ehuneko bateko erreserbatik datozen funtsak erabiltzeko irizpideei dagokienez, eta funts horiek erabiltzeko irizpide materialak proposatzea.

Ur Agentziari (Eusko Jaurlaritza) dagozkio beste funtzioen artean⁴, ondorengoak:

- Jabari Publiko Hidraulikoaren babeserako esku-hartzeak, berezia da kontzesio eta baimen administratiboak ematea, eta baita horien zaintze, ikuskatzea eta Jabari Publiko Hidraulikoaren araubide erregulatzailerean aurka doazen arau hausteen zigorra.
- Estatu administrazioak transferituriko, delegaturiko edo aginduriko eskumenak.
- Bere eskumenerako gaiekin loturiko diru-laguntzen kontzesioa.
- Gaien konpetentziak dituzten administrazioekin koordinazioan, Jabari Publiko Hidraulikoaren kontserbazioa eta babesa ziurtatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurugiro eta Lurralde Antolakuntza Sailari dagozkio, beste funtzioen artean⁵, ondorengoak:

- Lurraldeko hornitze eta saneamendu Plan Integrala.

³ 196/2013 dekretua, apirilaren 9koa, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dena.

⁴ 1/2006 legea, ekainaren 23koa, Urari buruzkoa.

⁵ <http://gipuzkoaldundia.net/es/html/43/377.shtml>

- Lurraldeko errekurto hidraulikoen planifikazio, kontrola eta ebaluazioa.
- Uraren kalitate-kontrola.
- Hondartzen garbiketa.
- Lurralde antolaketa eta kohesioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren berrikuntza, Landa-garapen eta Turismo sailari dagozkio, beste funtzioen artean⁶, ondorengoak:

- Nekazaritza sustatze eta antolamendua.
- Baso-baliabideen antolamendu eta hobekuntza.
- Naturaren kontserbazioa.
- Ondasun zinegetiko eta pisikolen babes, kontserbazioa eta erabilera onaren sustatzea.
- Gipuzkoako ehiza eta arrantza Lurralde Kontseilua.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Zuzendaritza Nagusiari dagozkio, beste funtzioen artean, ondorengoak:

- Ondare artistikoaren Zerbitzua

Alor honetan, Zumaia Udal, inplikaturiko udal nagusia, Getaria eta Zestoako Udalekin batera, euren ingurumen balioekin bateragarria den eremuaren antolaketaren sustatzean agente garrantzitsu izan daitezke, baita errekurtoak bereganatzeko orduan agente dinamizatzaile, akordio boluntarioak bultzatu eta Plan Berezirako proposaturiko helburuekin bat datorren gunearen kudeaketa iraunkorra sustatu dezakete.

Gauzak hala, aurrerantzeko udal aurrekontuak pixkanaka eta hurrenez hurren kontuan hartzen hasi beharko dira dokumentu honetako 1.2 *Egiteko jarduerak eta aurrekontua* epigrafean jasoriko egiteko jardueri erantzuteko beharrezko partidak. Horri dagokionez, garrantzitsua da adieraztea Udal Administrazioa izango dela beste Administrazioekin bat finantzazio formulak zehaztuko dituen; planaren helburuak aurrera eramateko alderdi garrantzitsua.

Azken batean, finantzazio bat sortu beharko da malgu, dinamiko eta denborekiko egokia dena, baina udal aurrekontuetan konstantea dena helburuak aurrera eraman daitezen aurretik atxikita dagoen *1.Taula Plan Berezian aurreikusitako jarduerak. Lehenespena eta aurreikusiriko aurrekontuan* jasotzen diren lehentasunak betez.

Beste alde batetik, Plan Bereziaren helburu den esparrua, edota honen funtsezko zati bat, Kontserbazio Bereziko Eremu izateak, Habitaten Zuzendarauaren babespean eta, ondorioz, natura-gune babestu gisa, *42/2007 legea, Abenduaren 13koa, Biodibertsitate eta Natura-ondareari buruzkoaren* bertuteaz, aukera izan behar du gailentzen diren bere balioen kontserbazioa bultzatzerako orduan eta gune horren kudeaketarako errekurto finantzarioak bereganatzeko orduan.

⁶ <http://gipuzkoaaldundia.net/es/html/43/367.shtml>

1.3.2. FINANTZAKETA ITURRIAK

1.3.2.1. Europako Funtsak

Europako programa askok ingurugiroaren babesean laguntzen duten ekintzak finantzatzen dituzte. Ikerketa, frogatze eta bioaniztasun gaitan bereziak diren programak daude, funts estrukturalak finantzaturiko eskualde programak, nekazaritza eta arrantza erkidego politikak etab. Egun Europar Batasuneko finantza aldia 2007ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2013an bukatzen den aldia da. ‘Lisboako eta Göteborgeko estrategiak’ dokumentuan ezarritako garapen helburuek nekazaritza, landa-garapen eta arrantza politiketan erreforma dakarte, politika guztien lehiakortasuna, elkartasuna, kalitatea eta ingurumen-dimentsioaren integrazio hobearen sustatzeko helburuarekin.

LIFE+ PROGRAMA

Europako Batzordeko Ingurugiro Zuzendaritza Nagusia (DG ENV) da ingurugiro gaiez nagusiki arduratzen dena eta berariazko ingurugiro gaien inguruko programen finantzazio⁷ mekanismoak dauzka.

LIFE+ Programa 2007-2013⁸ aldian ingurugiroari eskusiboki bideraturiko Europar Batasunaren instrumentu finantzari bakarra da.

Haren lege esparrua Europako Parlamentuak eta Kontseilu Europarrak 2007ko maiatzaren 23an 614/2007 zenbakidun (EE) Araudiak, ingurugiroaren finantziatorako instrumentuari (LIFE+)⁹ buruzkoak, ezarria da.

Araudiak ondorengo nabarmentzen du: *“ingurugiroaren babesa Europar Batasunaren garapen jasagarriaren dimentsio giltzarrietako bat da. Erkidego kofinantzaketarako lehentasunetako bat da eta bereziki erkidegoaren instrumentu finantzario horizontalek finantzatu beharrekoa da, hots: Eskualde Garapeneko Europako Funtsak, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak, Kohesio Funtsak, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak, Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Programa Markoak, Europako Arrantza Funtsak eta Zazpigarren ikerkuntza garapen teknologiko eta egiaztapenaren esparru-programa.*

Erkidegoaren instrumentu finantzario horiek ez dituzte ingurumen lehentasun guztiak estaltzen. Horregatik, ingurugiroarentzat instrumentu finantzario bat beharrezkoa da (LIFE+), ingurugiro arloan erkidegoaren politika eta araudia garatua eta ezarria izan dadin laguntza berezia eman dezan, bereziki, Europako Erkidegoaren Ingurumeneko Seigarren Ekintza Programaren helburuak, 2002ko uztailaren 22an, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1600/2002/CE zenbakidun Erabakian ezarritakoak.”.

Araudiak eranstzen du: *“Natura 2000 Sarearen finantzazio egokia ziurtatuko dituzten xedapenak ezarri behar dira, erkidego kofinantzazioa barne hartuz. Araudi honen helburua praktika hobeen proiektuak edota Natura 2000 guneen kudeaketarekin erlazio naturiko egiaztapen proiektuak bakarrik finantzatzea dela, Batzordeak eta estatu kideek ziurtatu behar dute beste instrumentu batzuen bitartez, sarearen*

⁷ http://ec.europa.eu/environment/funding/intro_en.htm

⁸ <http://ec.europa.eu/environment/life/index.htm>

⁹ Europako Erkidegoen Aldizkari ofiziala 2007/06/9. L seriea 149 zenbakia.

kudeaketarako nahikoa kreditu eskura jarriko dela, bere 2004ko urtean 6.100.000.000 € inguruko kostua estimatuz”.

LIFE+ Programaren gaikako arloetariko bat *LIFE+ Natura eta Biodibertsitatea* deiturikoa da, bere helburu espezifikoaren artean ondorengoak daudela:

a) Natura eta bioaniztasun politika eta legegintza komunitarioen aplikazioan laguntzea, bereziki 79/409/EEE eta 92/43/EEE zuzentzauekin, baita toki eta eskualde mailan, Natura 2000 arearen geroagoko garapen eta gauzatzea bermatuz, habitata eta kosta eta itsas espeziak barne;

Entitate, agente eta instituzio publiko, zein pribatuek LIFE+ programaren kargu finantzazioa jaso dezakete.

Dena den, kontuan hartu behar da LIFE+ programak ez duela *“hautagarritasun irizpideak jarrai ditzatela eta aplikazio esparru nagusia edo beste erkidego instrumentu finantzario batzuen helburu berdinentzako laguntzak jaso ditzaten, Eskualde Garapenerako Europako Funtsak, Europako Gizarte Funtsak, Europako kohesio Funtsak, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak, Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Programa Markoak, Europako Arrantza Funtsak eta Zazpigarren ikerkuntza garapen teknologiko eta egiaztatapenaren esparru-programa.”* neurririk finantzatzen.

LIFE+i gain finantzatuak izan daitezkeen zenbait neurri, besteak beste, ondorengoak dira:

a) GKEen jarduera operatiboak, batez ere Europa mailan ingurumenaren babes eta hobekuntzan aktiboak direnak eta erkidego politika eta arautzearen garapen eta aplikazioan parte hartzen dutenak;

b) zuzenean erkidego politika eta arautzearen gauzatzearekin erlazionaturiko sare, datu-base eta sistema informatikoak, bereziki ingurumen gaiei buruzko informazioetara publikoaren sarrera hobetzeko kasuetan;

c) lan-ikerketa, -analisi, -modelizazio eta -hipotesien garapenak;

d) jarraipena, basoena barne;

f) prestakuntza, lan tailerrak eta bilerak;

h) informazio eta komunikazio jarduerak, sentsibilizazio kanpainak barne;

j) bereziki natura eta biodibertsitateari dagokionean:

- gune eta espezien kudeaketa eta guneen planifikazioa, Natura 2000 Sarearen koherentzia ekologiko hobea barne,
- kontserbazio egoeraren jarraipena, zeinak jarraipen hori egiteko prozedura eta egituren ezartzea barne hartzen duen,
- habitat eta espezieak kontserbatzeko ekintza planen sorkuntza eta gauzatzea,
- lurzoruen erosketa, ondorengo baldintzen arabera:
 - ✓ lurzoruen eskuratzeak Natura 2000 gune baten osotasuna mantentzen edo berrezartzen lagunduko du,
 - ✓ lurzoruen eskuratzea kontserbazio material desiraturiko ondorioa lortzeko era bakarra edo eraginkorrena izatea,

- ✓ interesaturik dauden estatu kideek lurzoru horiek epe luzean naturaren kontserbaziorako erreserbaturik daudela ziurtatuko dute transferentzia edota beste metodoen bidez.

NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUA (NPB)

Europako Batzordeak Europar Parlamentuari, Kontseiluari, europo Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari eginiko “2020 Europarentzako aurrekontu bat” komunikazioan, kohesio politikan baldintzapen gehiago eta nekazariei eginiko ordainketa zuzenen ekologizazioa ikusarazten du. Zeharkako lehentasun politikoei ekiten die, esaterako, ingurugiroaren babesa eta klima aldaketaren aurkako borroka, esku-hartze nagusien eta instrumentuen parte gisa. Aurrekontua egikaritze fasean dago eta estatu kideekin eztabaidatzen ari da.

Batzordeak proposaturiko aldaketek EB osoan laguntza sistema bidezkoago eta zuzenago bat sartu nahi du, landaren kudeaketa iraunkorrean nekazaritzako eta ingurugiro politikak integratuko dituen sistema. Zentzu horretan, NPBak EBa ingurugiro eta klima arloetan haren helburuak lortzera laguntzen duela ziurtatzeko, egungo arautzeak inposatzen dituen baldintza eta betebeharez harago, laguntza zuzenen %30 “ekologizazioaren” mende jarriko dira. Horrek nekazari guztiek legerian agertuko diren eta egiaztatuak izango diren ingurugirorekiko mesedegarriak diren praktikak gauzatu beharko dituztela dakar.

Aurreikusiriko hiru praktikak¹⁰ ondorengoak dira:

- Bazkaleku iraunkorrak mantentzea.
- Uzten dibertsifikazioa.
- Uzta lurren ‘Interes ekologikodun gune’ baten %7aren mantentzea, gutxienez (bazkaleku iraunkorra alde batera utziz); esaterako uzta-muga, landaresiak, zuhaitzak, lugorriak, paisaia elementuak, biotopoak, hesi zerrendak eta basoturiko eremuak.

NEKAZARITZA ETA INGURUMENARI BURUZKO NEURRIAK EZARTZEKO LAGUNTZAK

Kontseiluaren 2005eko irailaren 20ko (EB) 1698/2005 araudiaren, landa-garapenarentzako laguntzei buruzkoaren arabera Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren (LGENFren) bitartez eta Batzarraren 2006ko abenduko 15eko (EB) 1974/2006 araudiaren, aplikazio xedapenak ezartzen direnaren bitartez, landa-garapen politikari oldar berri bat ematen zaio eta bere finantzaziorako erkidego-funtz berezi bat sortzen da. Martxan jarriko diren neurriak Europako Batzordeak onartuak izan dira eta Euskal Herriko 2007-2013 Landa Garapen Iraunkorrerako Planean (LGIP)¹¹ planifikaturik eta bildurik daude. Neurri horiek garatuak izan dira *133/2008 dekretua, uztailaren 8koa, nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzkoaren* bidez.

Baliabideak erkidegoaren LGENF funtsetik datoz eta gaian eskumenduna den Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu kredituekin eta LGIPko kofinantzazio datuekin bat eginez. Diputazioak, bere aldetik, finantzazio osagarriarekin lagun dezake, zeina baliabideak areagotzeko bideratua izango den, beste gauzen artean, ingurugiro laguntzak.

¹⁰ Memo/11/685, 2011/10/12koa. Europako Batzordea.

¹¹ Europako Batzordeak Erabakia C (2008) 704ren bitartez, 2008ko otsailaren 15ean baietsia.

Aipaturiko dekretuaren ekintza-ildoak eta Plan Bereziaren esparruan erabilgarritzat jotzen ditugunak ondorengoak dira:

- Nekazari eta basozainen aldetik aholku zerbitzuak erabiltzeko laguntzak (13.art.). Laguntza hauek jasotzeko lehentasuna izango dute, besteak beste, Natura 2000 gunetan kokaturiko ustiatzeen jabeek.
- Nekazaritza-ingurumeneko laguntzak (18.art.). Laguntza hauek emango zaizkie dagozkion nekazaritza-ingurumen kontratuak izenpetzen dituzten nekazaritza ekoizleei eta lurren kudeaketen arduradun diren elkarteei. Laguntza hauek baldintzak dakartzate ongarrien eta produktu fitosanitarioen erabileran, eta beste estatu eta autonomia legedietan ezarritako beharrezko baldintzetan. Kontratuak bost urteko aldietarako sinatzen dira. Nekazaritza-ingurumeneko kontratuak sinatu daitezke, besteak beste, ondorengo egintza-ildoekin erlazionaturik:
 - ✓ Ongarriak eta mindak kudeatzeko plana.
 - ✓ Landare estalkiaren ezartzeagatik zurezko laboreen lurraren babesa.
 - ✓ Intereseko sega-belardien kontserbazioa.
 - ✓ Errotazio laborantza gunetan bioaniztasunaren kontserbazioa.
 - ✓ Belar banden bitartez, ur-ibilguen eta hezeguneen babesa.
 - ✓ Landaresien mantentzearen bitartez, paisaiaren hobetzea.
 - ✓ Beste elementu batzuen mantentzearen bitartez, paisaiaren hobetzea.

BASO-INGURUMENAREN ALDEKO LAGUNTZAK

Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) bidez landa-garapenari laguntzeko irailaren 20ko Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Erregelamenduak 2007-2013 aldirako landa-garapeneko politikaren esparrua ezartzen du. Aipaturiko esparrutik abiatuta, estatu kideetan garatu egiten dira erkidegoaren arautze berrian jasoriko neurriak abiarazteko programa bereziak. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko 2007-2023 Landa Garapenerako Programa eratu da, Europako Batzarrak onartua. Programa horrek Europar Batasunaren eta Euskal Autonomia erkidegoaren artean mugaturiko landa-garapenerako neurriak martxan jartzeari ekiten dio, horien artean basogintzaren esparruko laguntzak daude *166/2008 dekretua, irailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko basogintzako diru-laguntzei buruzkoaren* bitartez garatuak. Aipaturiko dekretuan jasoriko laguntzak, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru organoak eskainiriko funtsak kofinantzatutakoak dira.

Dekretuaren IV. kapituluak 'basoko ingurumenaren aldeko laguntzak' jasotzen ditu, zeinak basogintza ingurunearen aldeko konpromisoak era boluntarioan izenpetzera bideraturiko laguntzak erregulatzen dituen. Laguntzen helburua da: *"EAEko basoek daukaten ingurugiro papera sustatzea, EAEko Natura 2000 Sarea osatzen duten habitata eta espezieen kontserbazioan eta berrezartzean laguntzea, baso-ekosistemen aniztasun biologikoa eta kudeaketa iraunkorra sustatzea, beren funtzio ekologikoa bermatuz eta baso-suteei aurre-hartzean lagunduz."*

Diru-laguntza jaso dezaketen ekintzen artean ondorengoak nabarmentzen dira:

- a) Zuhaitz autoktonodun zuhaitzien kontserbazio eta berrezartzea.
- b) Espezie bereziekin basotzeko mugak.
- c) Mendien kudeaketan eta baliatzean eragin txikia izango duten tekniken erabilera.
- d) Ibaiertzeko landarediaren kontserbazioa eta berrezartzea.

Gure kasuan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Baso Administrazioak ezartzen ditu baldintzak, betebeharrak, baimen eta baso ingurumenaren aldeko konpromisoei dagozkien modeloak, gutxienez ondorengo kontuan hartuz:

- a) Konpromisoak Foru Organoak ezarritako kontratu edo antzerako instrumentu juridikoekin bat sinatuko dira, zazpi urteko aldi baterako.
- b) Baso jabeek izenpeturiko konpromisoak dagozkien Baso Kudeaketa Iraunkorrerako Planetan jasorik egon behar dute.

1.3.2.2. Estatu Funtsak

*Abenduaren 13ko 42/2007 legeak, Natura-Ondare eta Biodibertsitateari buruzkoaren V idazpuruak natura-ondarearen eta biodibertsitatearen ezagutza, kontserbazio eta berrezartzea sustatzeko xedapen bereziak jasotzen ditu. **Natura-Ondare eta Biodibertsitateko Funtsaren** sormena (74.art.) dakar, zeinek instrumentu betearazle gisa funtzionatuko duen lurraldearen kohesioa eta legearen helburuen gauzatzea ziurtatuz, bereziki, baso kudeaketa iraunkorrerako, lurraren zaintzarako eta Estatuko Administrazio Orokorrak finantzaturiko gune natural eta baso guneen babeserako bideraturiko neurriak martxan jartzearenak; era berean jasotzen dira: estatu mailako irabazi-asmorik ez duten elkarreentzako kontzesioa, zeina natura-ondare eta biodibertsitatearen kontserbazioa, berrezartzea eta hobekuntza helburu duten jarduerak garatzeko bideratuko den; lurraldearen zaintzaren sustapena (72.art.); eta babes gune izendaturiko lurretan kanpo-efektu positiboak pizgarriak ezartzeko autonomia erkidegoen konpetentzia (73.art.)*

Funtsaren helburu dira:

- a) Pizgarri egokien bidez, ondare naturalaren, bioaniztasunaren eta geodibertsitatearen inbertsioa, kudeaketa eta antolaketa sustatu, bereziki, babesturiko gune naturalen kudeaketa planak, tresnak eta proiektuak landu, Natura 2000 Sareko eta nazioarteko tresnek babesturiko guneetarako, eta baliabide naturalen antolaketarako, bai eta Espainiako Espezie Mehatxatuen Katalogoko espezieen in situ eta ex situ kontserbaziorako.
- b) Beste jarduera batzuk garatu eta beste instrumentu gehigarri batzuk sortu babesturiko gune naturalen defentsan eta iraunkortasunean lagun dezaten, hala Natura 2000 Sareko eta nazioarteko tresnek babesturiko guneetan, nola baliabide naturalen antolaketarako eremuetan, bai eta Espainiako Espezie Mehatxatuen Katalogoko espezieen in situ eta ex situ kontserbatzekoetan ere.
- c) Ondare naturala eta bioaniztasun kontserbatzeko modelo iraunkorrak aldatzeko egin, bereziki gune natural babestuetan, Natura 2000 sarean, eta nazioarteko instrumentuek babesturiko guneetan.
- d) Desagertzeko arriskuan dauden habitaten eta katalogaturiko espezieen kontserbazio Estrategietan eta Planetan jasorikoa neurriak egikaritzen lagundu.

- e) Pizgarri egokien bidez, baso-inbertsioa, kudeaketa eta araudia sustatzea, bereziki mendien antolaketarako proiektuak eta plan dasokratikoen eraketa.
- g) Baso-guneen funtzio ekologikoak, sozialak eta kulturalak eta Natura 2000 sarera loturiko agente sozial eta ekonomikoek aurrera eramandakoak balioetsi eta sustatu, bai eta ingurumen zerbitzuak eta natur baliabideak kontserbatzekoak babestu.
- i) Natura ondarearentzako eta biodibertsitaterako beste inpaktu larrien ezabatze jarduerak babestu, bereziki espezie exotiko inbaditzaileen kontrola eta erauzketa eta habitaten zatikatzea.
- j) Baso kudeaketa iraunkorra mesedetzen duten baso ustiategi bateratuak garatzeko baso-jabegoen elkartzea sustatu.
- k) Baso-egiaztagiriaren erdiestea sustatu.
- l) Ondare naturalari, biodibertsitateari eta geodibertsitateari loturiko ikerketa aplikatu, froga eta esperimentazio ekintza bereziak finantzatu.
- m) Lurraldearen zaintzari loturiko jarduera bereziak finantzatu.
- n) Gune natural babestuetako, Natura 2000 sareko eta egiazaturiko basoetako produktuen erabilera eta ekoizteko zein merkaturatzeko laguntzak sustatu.
- o) Begiratzea, mantentzea eta jakintzen eta ohiturazko praktiken erabileraren sustapena bultzatu, natura ondare eta biodibertsitatearen erabilerarako interesa tartean; beste prozedura batzuen artean, aplikatzen duten eragileak piztea.
- p) Natura ondarea eta bioaniztasunaren defentsan eta iraunkortasunean lagunduko duten beste jarduera eta helburu gehigarriak garatu.
- q) Produkzio ekologikoa sustatu gune natural babestuetan, Natura 2000 Sarean eta Biosfera-erreserbatan sarturiko zonaldeetan.
- r) Higaduraren eta basamortutzearen prebentziorako jarduera bereziak finantzatu, lehentasuna emanez babesturiko gune naturalei, Natura 2000 sareari eta biosfera-erreserbei.

Autonomia erkidegoei dagokie Funtsari gain emaniko diru-laguntzen kudeaketa, zeintzuekin, aldez aurretik, kofinantzatuak izango diren neurriak hitzarmen bitartez aurrezarriak izango diren. 2013ko deialdia hurrengo helbidean kontsulta daiteke:

<http://www.fundacion-biodiversidad.es/inicio/convocatoria-ayudas/ayudas/117577>

2. Kapitula JASANGARRITASUN EKONOMIKOA

2.1. MANTENTZE BEHARREKO JARDUERAK

Proposaturiko jarduketei loturik, Plan Bereziaren helburu den esparrua geldituko den edota gelditzen joango den etorkizuneko agertokiari buruz hitz egin behar da. Helburuen mailaz mailako gauzatzeak aurreikusiriko jarduerak mantentzeko baliabide material eta ekonomikoak martxan jartzea eskatuko du.

Egia bada ere Planaren ezaugarriak kontuan hartuz, inpaktua beste esparru mota bateko eta erabilera intentsitate antolaketak eta eraikin dentsitate esanguratsuen kasuan baino txikiagoak izango dela, egia da ere, euskarri ekonomiko-material bat beharko duten jarduketa sorta bat izango dela, zeinak mantentze gastuak eragingo dituen.

Zentzu horretan, tokiko administrazioek kostu horiek bere gain haurtu beharko dituzte euren aurrekontuetan edota euren baliabide materialei kargatuz, arloko administrazioen bat lan horretan inplikatzeari alde batera utzirik.

Atxikita doan taulan aurretik gerorako mantentze gastuak sor ditzaketen jarduerak jaso dira. Aurreragoko fase batean mantentze eta kontserbazio lan horiek sorrarazi dezaketen gastuaren estimazio bat gehituko da.

KODEA	JARDUEREN IZENBURUA	AURREKONTUA
01.01.01	Santixo hondartzako sarbide berria mantentzea	
01.01.04	Hiri-hondartza eta duna aitzindariaren mugaren itxidura berrikusi eta mantentzea	
01.01.05	Informazio-panelak mantentzea (Santixo hondartza)	
01.02.01	Dunan zeharreko oinezko ibilbideak mantentzea eta seinaleak jartzea	
01.02.02	Dunaren batasunaren intereseko habitaten ixteak mantendu	
01.02.04	Santixo hondartzako ekipamendua eta jolas-tokia mantentzea	
01.02.06	Informazio-panelak mantentzea (Santixoko duna)	
01.03.05	Informazio-panelak mantentzea (Santixoko padura)	
02.01.01	Ontzien amarralekuak mantentzea (Bokalea)	
02.01.02	Pantalana mantentzea	
02.01.03	Urteroko bainatzeko ingurua mugarriztatzeko balizak jarri eta kentzea	
02.01.04	Pantalanaren mantentzea	
03.01.01	Ontzien amarralekuak mantentzea (Artadi)	
03.01.03	Ibaiertzeko pasealekuaren heskaia mantentzea	
03.02.03	Zubiberriako lursaila berreskuratua mantentzea	
03.03.02	Floresko ontziralekuko atsedengunea mantentzea	
03.04.01	Artadiko bidezidorrak kontserbatzea	
03.04.02	Artadiko begiratokiak mantentzea	
03.06.01	Artadiko San Migeleko begiratokia mantentzea	
03.06.02	Artadiko San Migelen berreskuraturiko artadi kantauriarra mantentzea	
04.01.01	Basadizarreko lubetan zuhaixkak mantentzea	
04.01.02	Basadizarko hegaztien behatokia eta informazio taula mantentzea	
04.01.04	Basustako landare-hesia mantentzea	
04.05.01	Sanmigelbasoko bidexka kontserbatzea	
04.05.02	Sanmigelazpian berrezarritako baso misto atlantikoa mantentzea	
04.06.01	Plantioaldean berrezarritako baso mistoa mantentzea	
04.06.02	Basadizar-Basustagainako bidexka kontserbatzea	
04.07.01	Basustagainan ibilbide sareari buruzkoa informazio gunea mantentzea	
04.08.01	Kanteragainako begiratokia mantentzea	

KODEA	JARDUEREN IZENBURUA	AURREKONTUA
04.11.01	Beduako ontziola mantentzea	
04.11.02	Beduako kultur ondarearen katalogatutako elementuak mantentzea	
05.02.02	Erriberetan berrezarritako gunek mantentzea (Oikia)	
05.04.01	Dornutegiko baso misto berrezarria mantentzea	
06.02.02	Ibaiertzeko landaredia berrezarria mantentzea (Soburutzaldea)	
06.02.03	Soburutzaldeko informazio gunek mantentzea	
06.02.04	Urlehortarrentzako urmaelak kontserbatzea	

3.Taula Mantentze lanak behar dituzten Plan Berezian aurreikusitako jarduketak.

2.2. EGINTZEN ZERBITZURAKO ERREKURTSOAK

Aurretik esan bezala, tokiko administrazioek kostu horiek bere gain hartu beharko dituzte euren aurrekontuetan edota euren baliabide materialei kargatuz, arloko administrazioen bat lan horretan inplikatzeari alde batera utzirik.

Jarraian Plan Berezian aurreikusi diren jardueren zerbitzura egon daitezkeen esparruan eskumenak dituzten administrazioen baliabideen zerrenda erantsi da. Informazioa eskuragarri izan denetan erantsi dira administrazio horien aurrekontu partidak, zeintzuk Plan Bereziko jarduerak eragindako gastuak mantentzera bidera partzialki daitezkeen.

Administrazioa	Funtzioak / Jarduerak / inbertsioak	Atxikitako langileria	2012ko aurrekontua
Zumaiaiko Udala	441 programa: Ur saneamendu, hornitze eta banaketa	Udal funtzionarioak: • Hirigintza, MA, Obrak (1) • Ingurugiroa (1) • Hirigintza (1) • Udaltzaingoa (9) • Zerbitzuak (5)	1.446.200 €
	444 programa: Ingurugiroaren babes eta hobekuntza		355.168 €
	449 programa: Komunitate-ongizatea (Brigada)		210.877 €
	456 programa: Hondartzak		133.600 €
	511 programa: Errepide, auzo-bide eta bide publikoak		335.000 €
	531 programa: Nekazaritza eta abeltzaintza garapena	Langile lan-kontratadun gehiago. Garbiketa zerbitzuak, lorezaintza, brigada, hiritarren segurtasuna ...	41.500 €
Gipuzkoako Itsasertzetako Zerbitzu Probintziala	Itsaso eta Lehorren arteko Jabari Publikoaren kudeaketa, babesa eta polizia.	Kostazain zerbitzua.	Ez da ezagutzen
	Itsasbazterren berrezartze eta birsartze jarduerak eta inbertsioak	Gipuzkoako Itsasertzetako Zerbitzu Probintzialeko kide diren teknikariak.	
Kultur Ondarearen Zuzendaritza (EJ)	Kultur ondarearen babesa, zabalkundea eta sustatzea	Zuzendaritzako kide diren teknikariak	Aurrekontuaren erreserbaren %1
Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak – EAEko Natura 2000 Sarearen behatokia.	‘Urola itsasadarra’ KBE espazio natural babestuan eginiko jarduketaren kontrola	Natura Ingurunearen Zuzendaritzako kide diren teknikariak.	Ez da ezagutzen
	Ingurumenaren kontzientziazte eta sentiberatze jardueren koordinazio eta gauzatzea		
URA - Ur agentzia	Ur-masen egoera ekologikoaren kontrol eta jarraipena	Ur Agentziako kide diren teknikariak	Ez da ezagutzen
	Jabari Publiko Hidraulikoaren Babesa	Ur Agentziaren guardia zerbitzua	Ez da ezagutzen
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako	Saneamendurako plan integrala Uraren kontrol eta kalitatea	Obra Hidraulikoetako kide diren teknikariak	Ez da ezagutzen

Administrazioa	Funtzioak / Jarduerak / inbertsioak	Atxikitako langileria	2012ko aurrekontua
Zuzendaritza (DFG)	Santixoko hondartzaren garbiketa eta jarraipena		
Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusia (DFG)	Jarduera zinegetikoen kontrola	Natura Ingurune kide diren teknikariak	Ez da ezagutzen
	Baso baliabideen antolaketa	Mendietako kide diren teknikariak	Ez da ezagutzen
	Gune babestuen kontserbatzea	Gipuzkoako Foru Aldundiaren guarda zerbitzua	Ez da ezagutzen
	Landare eta animalien babesa		
	Ur kontinental publikoen eta haien ibilgu naturalen, ibaiertzen eta zortasunen polizia		
Gipuzkoako ur kontsортzioa	Hornikuntzarako eta saneamendurako sarearen mantentzea	Enpresa publikoko langileak	Ez da ezagutzen

4.Taula Inplikaturiko administrazioen errekurtsioak